

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1808

AGINDUA, 2015eko apirilaren 9koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014. urteko Ikerkuntzarako Euskadi Sariko epaimahaia izendatzeko dena Zientzia eta Teknologia modalitatean.

Azaroaren 30eko 323/2010 Dekretuak Ikerkuntzarako Euskadi Saria arautzen du, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz.

Azaroaren 30eko 323/2010 Dekretuak, seigarren artikuluan, honako hau ezartzen du:

1.– Urtero eratuko da epaimahai bat, Ikerkuntzarako Euskadi Saria ebazteko, dekretu honen 1.2 artikuluan ezarritakoaren arabera dagokion modalitatean.

2.– Ikerkuntzarako Euskadi Sariko epaimahaikideek euren jardun-eremuetan izen handia izan behar dute; bost kideetik zazpira bitartean izango dira, eta horietako zaharrena epaimahaiburua izango da.

Epaimahaia osatzerakoan, ahal den neurrian, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako printzipioa errespetatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.6 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren agindu baten bitartez emango da epaimahaiko kideen berri, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, gutxienez epaimahaiak epaia eman baino bost egun baldiodun lehenago.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Eranskinean azaltzen diren irakasleak 2014. urteko Ikerkuntzarako Euskadi Sariko epaimahaikide izendatzea, Zientzia eta Teknologia modalitatean.

2. artikulua.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

3. artikulua.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean. Bi kasuetan, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da epea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 9a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2015eko apirilaren 22a, asteazkena

ERANSKINA

2014. urteko Ikerkuntzarako Euskadi Sariko epaimahaikideak, Zientzia eta Teknologia modalitatean:

M.^a Teresa Miras Portugal andrea.

Jose Antonio López de Castro Alvarez jauna.

M.^a Jesús Esteban Galarza andrea.

Luis Oro Giral jauna.

Javier Tejada Palacios jauna.